

NEGURI 1

Neguriren sorreran trena dago; 1887an heldu zen trena Areetara eta 1893an Plentziaraino. Neguriren sorrera 1903an ezarri ahal dugu.

Hemen, gaur egungo etxe hauen aurretik baserri batzuk zeuden; **Aretxeta**, **Aretxetaurre**, azken batean landa eremua zan eta toponimo deskribatzaile espazialak erabiltzen ziren; baserriaren aurrea, atzea eta abar.

Neguri **Isaac Ammanek**, **Enrique Arestik** eta **Valentin Gorbeñak** espekulazio mobiliariarako sortutako hiria da; hiru enpresariak "Sociedad de Terrenos de Neguri" elkarte sortu zuten burdinaren gorakada ekonomikoak zekartzan premia berriak aprobetxatzeko. Neguri ondo kokatutako toki zen Bilbo eta itsasoaren artean eta Bilboko burgesia kostaldera etortzen hasi zen itsasoko bainuek erakarrita; Areetako hondartzako bainuetxea erreklamo potentia bihurtu zen osasuna baloratzen hasi zen burgesiarentzat eta Bilbotik ihesi, hau izan zen jo puntu berria. Nahiz eta gero, kanpoko portua egin zenean hondartza txikitu, ja moda ezarrita zegoen eta burgesiak burgesia ekarri zuen.

Hiru bazkideek, hiri lasai bat nahi zuten, ondo diseinatutakoa, ordenatua, kale zuzenak, **loruria** antolatu nahi zuten 1903an sortu zuten baina **Neguri** izena ez zitzaizen beraiei bururatu **Resurrección Maria Azkue** abade euskaltzaleari baino. Hiru enpresariak joera politiko ezberdinak zituzten: **Amman** dinastikoa, **Aresti** kontserbadorea eta **Gorbeña** liberala; ez ziren nazionalistak baina lurrari lotuta zeuden eta garrantzia ematen zioten bertako "arrastoa" edo "inpronta" izateari. Resurrección Maria **Azkue** euskaltzaina aurretik ari zen kaleetan euskarazko izenak bultzatzen; horregatik jo zuten berarengana eta loruri berriarentzat, enkarguz, izena eskatu zioten; negurako herri baterako izena aukeratzekoan **Negu+uri** proposatu zuen Azkuek.

XIX. mende amaieran zegoen euskararen gaineko ikuspegi soziala eta gaur egungo ez dira konparatzekoak. **Sabino Aranak** mahai gainean jarri aurretik ez zen zalantzan jartzen euskararen egoera subordinatua; zerbait "tribala" zen, norberaren lurrari, jatorriei, aitzindariari lotutako zerbait eta etxeei eta auzoei euskal izenez deitzeaz gain, ohikoak ziren XX. mendea ondo sartu arte herri euskaldunetatik etorritako ume zaintzaileak eta hauen zeregina, askotan, umeei euskaraz egitea izaten zen.

Karmengo eliza hau, **Isaac Amanek** enkargatuta, **Emiliano Amman** seme arkitektoak egin zuen 1908-1910 tartean (Deustuko unibertsitate komertziala, Begoñako igogailua eta Getxon hainbat etxe ere egin zituen); neogotikoa da eta modernoa Europako hainbat tokitako gauzak hartzen dituelako. XIX-XX hasierako arkitekto hauek punta-puntako joera arkitektonikoak erakusten saiatzen ziren betiere baserri itxurako "neo" estiloaren barruan.

NEGURI 2

Los Rosales (Seguros Bilbao)- Rafael de Garamendi arkitektoa (landetxea, ingeles eragina).

Rafael Garamendik, 1917 eta 1920 urteen artean eraikitako etxe honetan eragin ingelesa nabarmena da bere lorategi handiarekin baina euskal elementuak eta elementu espainolak nahasten dira.

Kokalekua ere bikaina du, izan ere, Neguriko erdialdeko etxadi oso bat berak betetzen du. Seguros Bilbao Sozietateak erosi zuen MacMahon familiaren eraikuntza zaharra bertan bere bulegoak jartzeko, eta eraikina zaharberritu ondoren 1988 urtean inauguratu ziren aipatutako bulegoak.

1918-19 urterako **Neguri** proiektuko orube guztiak salduta, etxeak eginda; **Igeretxe** (Igeri+etxe), **Askaltegi**, **Izpegi** (itxas-begi), **Jolaseta** (Jolasetarako tokia)...hauek ere enkarguz **Azkuek** sortutako izenak dira; **neologismoak**. Azkueren neologismoak baina, ez ziren Sabino Aranaren estiloko neologismoak baizik eta euskarazko oinarria zutenak. Eguneroko berbetatik sortutako berba berriak proposatzen zituen Azkuek, Alemanian egiten zen moduan eta erdal usaina zutenak baztertu nahiz eta batzuk azpian berak ez zekizkizuen latineko edo zelterazko sustraiak izan.

Lehenago esan dugun moduan euskara eta "euskal" kutsua bilatzen zuten baina hau ez zen inoiz garrantzitsuena. Etxeei euskal izena eta arkitekturaren estilo euskalduna bilatzen zuten baina etxe barruan, erdara erabiltzen zuten: ***JOLASETA** (jolas+ -eta) Kirola egiteko lekua; euskarazko izena bai, baina ez herri-kirolak egiteko, tenisa, futbola... ingelesak... 'modernoak'.

Jolaseta kiroldegia ere Neguri sortzea ekarri zuen higienismoan ikusi behar da. **Neguri** "loruria" sortu zen garaian, garrantzi berezia ematen zitzaion kirolari eta lur eremu bat gorde zen kirolerarako. Beroni **Jolaseta** izena eman zioten, bertan "jolas" desberdinak egongo baitziren. Besteak beste, futbol zelaia eraiki zen eta **Bilboko Athletic** taldeari eskainita, han aritu ziren 1911tik 1913ra arte.

-**ETA**: Toponimia zahar eta berrian (neotoponimoetan). Lekua edo parajea izendatzeko erabiltzen da. Zein da atzizki honen jatorria? Deklinabidean badago pluralean...Nora zoaz? Haitzetara. Non zaude? Haitzetan. Nondik zatoz? Haitzetatik. Azkenean Haitzeta toponimo moduan. Hondarreta, Pagoeta, Aretxeta... Azkuek asmatutakoa: **Jolaseta**.

-**TEGI**: Toponimia zahar eta berrian: Usategi, Lopategi. Etxeak (edo eraikinak) izendatzeko. Azkuek asmatutakoa: **Askaltegi**.

NEGURI 3

Etxetxu (Leioako etorbidea, 15) deitzen da etxea eta lehen aipatutako euskal estiloaren adibide garbia da; egurraren imitazioa, kolore gorria eta zuria, iparraldeko etxeen itxura, materialak hala ere txukunagoak; jauregi txikiak dira, erosotasun guztiekin eta jabe eta zerbitzuko langileen bizitzak bereizita.

Etxeak batzuetan euskarazko grafia dute, beste batzuetan ez; kasu honetan **Echechu**. Izan ere ohiko harreman hizkuntza Bilboko burgesia honetan gaztelania zen; euskara formula estetiko baina ez zen inolako kutsu politiko barik; izan ere garai horretan ez zegoen abertzaletasunaren eta euskararen arteko lotura argirik oraindik.

NEGURI 4

Trena garraio bide anitza zan; karga, saltzaileak, pasajeroak, **Neguri** eta **Areetaren** sorrerako elementu funtsezkoa izan zen II. Gerra karlista amaitu ondoren Bilbotik **Algortara** trena ekartzea.

Geltokia XIX. mende amaierakoa da; adreilua erabilitakoa aurretik **San Ignacio** izena zeukan Neguri oraindik asmatu gabe zegoelako. Gutxi zegoenez eraikita, erreferentzia hurbilena San Inazio eliza zen eta beranduago, Neguriko Lobbyak

Neguri jartzea eskatu eta lortu zuen, kasu bera da **Bilboko** zazpi kaleei, **Casco Viejo** jartzearena, mahai baten gainean sortutako izenak dira; Plentziako **Abanico** bezala; ez dira bertokoek sortutakoak.

NEGURI 5

Izpegi etxe ezaguna, hau ere euskal estilokoa. **Ramon de la Sotarena** zen; abokatu, politikoa eta Bizkaiko enpresaburu aberatsenatarikoa. EAJko bultzatzaile ekonomiko nagusia izan zen bere hasieretan.

Bere etxe honetan, Ama Birjinaren irudia dago aurrean; beste batzuk santuak izango dituzte baina ia inoiz ez zuten armarririk jartzen sasoi honetan; baserri erromantikoetatik urruntzen saiatzen ziren herritarrengandik hurbil egotearen itxura emanez.

Izpegi: Eklektizismo Erregionalista estiloan kokatzen dute. Itxuraz (hipotesia): Itsas +begi > Izpegi esan nahi du (Ispaster/Izpazter bezala).

Bidean zer bait guztiz desberdina ikusiko dugu.

Villa Margarita.

Lan modernistak gogoratuko digu. Horietan, nagusia da kurba, ez dago ezer zuzena. Estilo horrek modernismoa edo Art-dec6 du izena. Oso polita izan arren oso deigarria da, kurbak hain zuzen ere. Tamalez, Bizkaian modernismoa gutxitan erabili zuten arkitektoek. Adibide handi baino ez ditugu: Bat Bilbon Errekalde zumarkalean (Alameda Rekalde), Eliptika plazaren ondoan (Ataria ikustea merezi du), eta Getxoko hau. Nahiko aldatuta dago, baina leihotetan eta ateetan nabarituko dugu estiloaren oinarriak.

NEGURI 6

Ez da "atzeko landeta" atzean dagoelako; toponimoa **ATX** da harkaitza "Haitzeko+landeta"

Atxekolandeta XVIII. gizaldian ia hutsik zegoen gunea da; gotorlekua, pare bat baserri eta haremunak imajinatu behar ditugu. Toki desatsegina izango zen bizitzeko eta egokiagoa otea biltzeko "Argomales de las Arenas" "Argomales de Portugalete" ere deitzen zitzaion beste barik; Portugaletetakoek sortutako izena eta bere bidea egin zuena; izan ere inguru hau guztia hurbilago dago Portugaletetik orduko herrigunea zen Portu Zaharretik edo parrokia zen Getxoko Andra Maritik baino.

Gobela eta **Kresaltsu** ibaiak ere hemen itsasoratzen ziren, (geroago egingo zizkieten ubideak); oso eremu desatsegina, harea, kresala, haizea, lurra ez zen egonkorra, ibaiak nahi bezala itsasoratzen ziren eta XIX. mendean hondartzak balioa hartzen hasi ziren arte, ez zen balioetsitako tokiak izan.

GOBELA ERREKA:

Gobela erreka Getxoko ardatzetako bat izan da errotak mugitzeko indarra ematen baitzuen, nahiz eta muga ere izan den. Erreka Avanzada inguruan itsasoratu zen garai batean, baina Areeta finkatzeko lanengatik kontrako bidea eman zioten eta sasoi batean **Ibaizabal** behera zihoan tokian **Gobela** gora zebilen, alderantzizko norabidean.

Geroago hormen artean sartu, estali eta azkenik, berriro antzinako bidera itzuli zuten. Denbora tarte horretan bere mendekua hartzen zuen noizean behin, herria ur

azpian utziz. Gaur egun Areeta azpitik, Lamiakorantza desbideratu, Udondo errekarerekin bat egin eta Leioan ibairatzen da.

Nahiz eta dokumentazioak eta euskal ahoskera bat etorri **Gobela** moduan izendatzean; erdaraz ohikoa da **-s** arrotza ezartzea inguruko eta Euskal Herriko beste lekuetako izen askotan bezala (**Illetas, Aldapas...**)

Areetako pasealekua: Artifiziala, lehen hondartza. Kanpoko kaiak egitean korronteak aldatu ziren eta hondarra eraman zuten, itsasoa gehiago sartu zen eta lehen posizioan zeuden etxeak erdi-jausten hasi ziren; gainera, Zugatzarteko errepidea-bidea beherago zegoen eta sarri blai egoten zen. Normala den moduan bizilagunak kexatzen hasi ziren eta babeserako harresi modukoa eraiki zuten hasiera batean.

Hori nahiko ez eta, 1889an, Abrako kanpo portuko obrak hasi ziren "debidas el genio y tesón del primer director de la Junta de Obras del Puerto, don **Evaristo de Churruca**". (Lehengo Santurtzitik ateratzen den kaia eraiki zuten eta ondoren, 1903an, Arriluzekoa). Kai honek korronteak aldarazi zituen eta Areetako hondartza handiaren desagertzea, **Urresti** familiak eraikitako bainuetxea desagertzea eta hondartza alboko etxeen mehatxua ekarri zuen. Kalte gehiago saihesteko eta lurrak egonkortzeko Areetako kaia eraiki zuten.

NEGURI 7

Hemendik ikusten ditugu **Atxekolandetako** eraikinak eta beste aldean etxeen atzeko parteak (lehen atzekoak, orain nagusiak). Etxe guztietako elementu nagusiak (lorategiak, monumentalitatea eta abar) beste aldean daude. Prestigioa aurreko kale nagusi honetan zegoen; hau zen erakusteko aldea. Orain aldiz, etxe horiek baloratzeko atzeko alde hori kontuan hartzen da.

NEGURI 8

Punta Begoña/Begoñako lurmuturra

Punta Begoñak badirudi badirudi milaka urteko bisitokia izan dela baina tokiaren izenaren atzean gotorleku militar bat dago. Getxon 4 gotorleku egon izan dira: **Galean, Usategin, Begoñako puntako** hau eta **Gazteluzarra**. Gotorlekuei "Gaztelu" izena eman izan zaie askotan euskaraz nahiz eta askotan kanoi batzuk baino ez izan.

Begoñako Punta edo Punta Begoña honek, Abraren defentsarako kanoi batzuk zituen eta izena "**Begoñako Ama**"tik dator; izan ere fuerte edo gotorlekuei santuen eta ama birjinen izenak ipintzeko joera egon da, horregatik militarrek jarritako izen erlijioso honen zergatia.

Pasa den mende hasieran, Punta Begoñako galeriak eraiki zirenean, inguru horretako paisaia egungoaren oso bestelakoa zen: kostaldea itsaslabarra zen, hareatzak ez ziren existitzen gaur egun ezagutzen ditugun eran, ezta Ereagako hondartzako pasealekua ere; ez errepiderik, ez autorik, ez jendea paseoan... Kontradikerik ere ez zen existitzen, eta are gutxiago kirol portua, jatetxeak, tabernak eta terrazak...

Ehun urte igaro dira Horacio Etxebarrieta magnateak Punta Begoñako galeriak eraikitzea agindu zuenetik eta, orduan, Getxoko itsasbaterreko paisaia apurka eraldatzen joan da gizakiaren eraginez

Horacio Etxebarrieta Europako dirudunen artean dirudunenetakoa zenak Getxon ezarri zuen bere udaldietarako egoitza; justu galerien gaineko aldean. Euskal burgesiaren artean ur gaziko bainuak modan jarri ziren garaia zen, eta Bizkaiko udalerrria izan zen bainu turismo horren gune garrantzitsuenetakoa bat –villa handien paseoa da horren lekuko–. Horacioren etxea, desagertua dena, **Gregorio Ibarretxe** arkitektoak eraiki zuen, eta Itsasoaren kolpeek lur-jausiak eragin zitzaizkion beldurrak bultzatuta, galeriak eraikitzea agindu zuen, euste-horma gisa.

Galeriok, **Ricardo Bastida** arkitektoak eraiki zituen, (Bilboko Alondegia zaharraren egileak). XX. mendeko Bizkaiko eraikuntza adierazgarrienetakoa bat dira, zuten erabilera bereziagatik, kokaleku bitxiagatik eta gauzatzeko erabilitako teknologiatik (hormigoi armatua erabili zen, garai hartan oso material berritzailea). Eraikina nahiko eklektikoa da; galerien dekorazioan Bartzelonako modernista antzematen da; fatxada klasizista italiar Errenazimentuarekin lotzen da eta horrez gain arkitektura frantsesaren eragina: fatxada geometrikoa, pilastra, balaustrada eta erlaitza.

Azkanaldiotan, EHUko ikertzaile eta teknikari talde bat Galeriak berreskuratzeko eta beren balioa nabarmentzeko lanean aritu da. Eta 2018an Historiaurreko aztarnategi bat aurkitu zuten «ezustean», duela 5.000 urtekoa.

Inguru berdinean, jatorri berdina izan arren, gaur egun desberdin baloratzen diren toponimo bi: **Atxekolandeta** (ingurua) eta **Aitzgoien** (etxea).

Bizkaierazko ATX berbaren gainean eraikitako toponimo ezberdin bi; **Atxekolandeta** tokiko toponimoa da, herriak sortua eta gaur egungo ikuspegitik egokiagoa; **Aitzgoien** osterara, XX. mende hasieretan segur aski **Azkue** asmatutakoa da eta gipuzkerako jatorria duen **AITZ** terminoan sustraitzen da; izan ere Azkue euskara batu nazional baten alde zegoen baina gipuzkeratik abiatzea proposatzen zuen eta horregatik bere noranzkoa Gipuzkoan erabilitako eta euskaran oinarritutako izenak proposatzea zen; horren beste adibide bat **Igeretxe** (igeri+etxe) Gipuzkoako "Igeri" dauka sustraia. Inguruko euskaran oinarritu izan balitz "**Uger**" erabiliko zuen.

NEGURI 9

1897 inguruan hasi ziren (1903an amaitu) Arriluze kaia egiten. Portu Zaharreko kaia sakonera txikikoa zen; traineru gutxi batzuek erabili ahal zuten baina arrantzarako portua izanda, baporeek ez. Arriskutsua da hondarrean baporea jartzea; horregatik egin zuten hau; **Arriluze** portua deitu zioten, ez zioten "barria" deitu "Portu Zaharra"ren aurrean.

Inguruaren izena, **Arriluze** da; Arri+luze izenari dagokionez; itsasberan, "singeras" deitutako harri luze batzuk agertzen dira hemen itsasoan eta hori ingurua izendatzera pasatu zan. Beraz, ez da abizena, toki izena da. Gaur egun normala da joera hori baina garai horretan ez zen; gehiago jotzen zen asmatutako izenetara. Punta Begoña beste bat, erdararen indarrez sortutako izena da; fosildu egin zen eta gaur egun Puntabegoña. Adibiderik hurbilena, metroarena; metroak ez bazuen **Areeta** izena jarri, bertoko euskaldunek ere "Las Arenas" erabiliko zuten, nahiz eta lehengo zaharrek **Areeta** erabili. Zorionez ofizialtasunak kasu honetan euskarazkoa bultzatu zuen.

XX. mendean salbamenduen politikak berritu ziren. Beraz, 1917an Bilboko "Asociacion de Navieros"-ek Francisco Aldekoa armadoreari salbamendurako zentro bat antolatzea enkargatu zion eta horregatik deitzen da **itsasoan galdutakoen etxea**. Arkitektoa Smith izan zen eta 1920an amaitu zuen. Ikusten duzuen estiloa neobasco da, eta baserriko elementuak, faltsuak izan arren, bistan daude; bi

solairuko baserri handi baten itxura du. Neo euskotarra. Izkina batean, zirkuliformako ebakidura duen itsasargia dauka.

San Nikolas kofradia bere baporeak hemen atrakatzen hasi zen (ez bakarrik kofadiakoak, baita inguruan bizi ziren aberatsen yateak ere) eta horrekin batera arraina saltzeko benta-leku berria ere hemen sortu zuen; **Neguri** eta **Areeta** populatzen ari ziren pertsonengana heldu nahi zuten. Bentalekua zegoen bertan. Arrainaren salmenta egiten zuten. Gerra aurretik galdu zen benta egitea.

Gaur egun Gurutze Gorriaren egoitza da.

Itsasargia 1939an piztu zen.

Arriluzeko portua edo Portu barria, 1999koa da eta euskal herriko lehen kirol portua izan zen.

NEGURI 10

Inguru honetan, erakutsi ere egin nahi zuten aberatsak zirela; etxe handiak, jauregi itxurakoak, arkitekto oso famatuak egindakoak material oso onekin.

Arriluze Jauregia

Fernando María Ybarrak eskatu zion egiteko José Luis de Oriol bere koinatuari, 1910ean. Fernando Ybarra politikari kontserbadorea zen, eta Alfonso XIII. erregeak Arriluze de Ybarra markes titulua eman zion

Esaten da etxeak Erdi aroko itxura duela elementu britaniarrekin eta Kantabriako etxeen estetika ere baduela; "neomontañesa" deitzen zaio horregatik.

Aitzgoien

MM Smithek estilo neoeuskaldunean egindako lehen lan handia ei da. 1909an lana egiteko eskatu ziona **Emilio Ybarra** politikari eta El Pueblo Vascoren zuzendaria izan zen.

Ampuero etxea

Jose Ampuero enpresari eta politikariak eskatu eta MM Smithek egina 1928an. Gerra Zibilaren aurretik, Arriluzeko erlaitzean eraikitako azken jauregia da

Lezama-Leguizamon jauregia

Neguriren gorakada sasoian, Atxekolandetako lehen etxea Lezama-Leguizamon izan zen 1903an **Ramon Basterra** arkitektoak egin zuen; berak hasi eta Ramon Maria **Smithek** aldatu 1919an ukitu modernoagoa emateko Santa Klara jauregiarekin ere berdina gertatu zen; Basterrak diseinatu zuen eta Smithek gaur egungo ukitu modernoa eman zion.

Bereziak ditu eta izan ditu liburutegia, lorategia, kapera, zerbitzua eta abar; izan ere lehen jabea liburuzale handia zen eta 1933an erre zen arte, esaten da estatuko biblioteka pribaturik handiena zeukala.

Salamancako Monterrey jauregian (XVI. mendea) oinarrituta dago.

NEGURI 11

Balanar edo **La Bola** hondartza: antza danez kaia egiteko etorritako makinista frantses baten izenetik etorri ahal da; **Ballana** abizenetik baina zalantzak daude.

Hondartza txatxar hau aspaldiko Areetako hondartza ederreko hondarra baino ez da. Areetako hondartza honek erakarrira neurri handi batean etorri zen Negurira Bilboko burgesia baina Txurrukek bere kaia egin zuenean, korronteek harea eraman egin zuten, Areeta hondartzako bainuetxea baliogabetu eta gaur egun **Zugazarte** etorbidean dauden zenbait etxe bota ere egin zituen itsasoko urak janda. **Arriluze** kaia egin arte iraun zuen egoera horrek.

Vallejo etxea (Algortako etorbidea 4)

MM Smithek egina 1924an Emilio Vallejo enpresariarentzat eta bere familiarentzat Smithek berak, 1952an, Emilioren seme-alaben eskariz, handitzea zuzendu zuen

Eguzkialde (Algortako etorbidea 1) alkate andrearen etxea ere deitua. 1918an egin zuten eta "neomenditarra" deitzen den estiloa arkitektonikoan egindako luxuzko etxea da. Estilo honek Kantabriako etxeen ezaugarriak erabiltzen ditu: eguzki ordu asko izatea, dorreak, armarriak, bolak... material onak ditu eta jendeak erraz ikusteko tokian dago, jatorrizko Avanzadan.

Barbier etxea moduan ere ezagutu izan da; Barbier izeneko batek enkargatu zuelako eta gaur egun ezagunagoa da Alkate andrearen etxea modura; izan ere bertan bizi izan zen Espainia guztiko lehen emakume industria ingeniaria eta beranduago Bilboko alkatea.

Hala ere benetako izena Eguzkialde da

Esan behar da, gaur egun Avanzada Leioa gurutzatzen duen bideari deitzen bazaio ere, jatorrian, hemen amaitzen zela.